

## Aintzin solasa

Ale trinkoa 10garren hau. Irakurraldi bat eman, apalean gorde; eta, gerora, poliki-poliki edoskiz joatekoa.

I. Idiazabal irakaslearen artikuluak balio berezia du. Batez ere berak arazo hauek barrutik ere ongi ezagutzen dituelako. Bere luma hertsiki menderatzen saiatu bada ere, nabarmenki agertzen da egilearengan Eskola Publikoaren legeak sortu duen etsipen ezin etsia. Ez baita sendimendu eta samindura horretan bakarra! Gure herria "ikusit nahi ez izatea" somatzen du Idiazabalek azkeneko lege eta erabakietan; eta gure herriak besterik espero eta merezi zuela. Nola edo hala "bi saretara" bildu behar genuen geure irakaskuntza. Zergatik? Hiru saretan ibili garen urteetan, ikastolena barne, horren gaizki joan al zaigu bada?

Basurko irakasleak, bere aldetik, aspaldidanik eskolaren alorrean buru-belarri saiatua, oso balantze argitsu eta zehatza eskaintzen digu Euskal Eskolaz. Horra hor gerora hausnartu eta edoski egiten diren lan horietako bat. Datu pila, zenbakitan. Iritzi pila bat ere bai hiru eskola-ereduez, eta beharrezkoa den berrikuspenaz.

Fishman-en baiepenak ez dute BAT-en irakurlea sobera harrituko. Hizkuntzen berreskurapenean **instituzio soilen ahalmenaz** gero eta etsiago, berriro ere beharrezko **zubien** jokoaz ari zaigu oraingoan. Etxegiaren eragina azpimarratzen digu Fishmanek, auzoko hizkuntz erabilpenarenaz, gazteriaren garrantziaz. "Eskola ez da dena"; nahiz eskola guztiz beharrezkoa izan.

Bourhis-ekiko elkarrizketa luzea (Donostian hizketatua, eta euskaldun jende askorekin zehazki ari izana), batzaz beste Fishmanen iritziak indartzekotan dator. Instituzionala dago batetik, eta informala bestetik. Bien arteko **zubi**a landu behar da. Eta, bide beretik, 12/18 urteko epe arriskutsua behar da ongi aztertu. Musika modernoaren alorra bultzatu behar da, modernotasuna euskaldundu behar da. Bertsolariei bai, dio Bourhis-ek; baina kantu modernoa eta rocka euskalduntzea hobe. Lurraldetasunari, bai; baina ez gaur. Euskararen egoera ahulegia da horretan pentsatzeko. Lor dezagun "diglosia on" bat; eta zabal dezagun piskanaka euskararen funtzio-multzoa. Geografikoki ere, dio Bourhis-ek, bide bera har dezagun: lehendabizi "irila" batzu segurta ditzagun. Gero

"peninsulak" molda ditzagun. Eta abar. Eta ez ditzagun espantuak maita: lorpenak aurrenik, gero hitzak eta agiri baikorrak.

I. Arregik, bere aldetik, UEMAren berri zehatza ematen digu. Zoritxarrez euskaldunen artean oso ezaguna ez izaki, bere balio "profetikoa" du udal elebakarren elkarte honek.

Odriozolak, bestetan bezala, irakurgai batzuen berri ematen digu oraingoan. **Iñaki Lasagabaster**-en azterlanaren berri ematen digu ("El euskara y los medios de comunicación en la Comunidad Autónoma del P.V."). Kritika zorrotza; "egin-irratia"rekiko aipamen berezia falta ez delarik. **Bastardas** katalana ezaguna zen lehenagotik (batez ere Kataluña egoera sozio-linguistikoari buruz egindako ikerlanen bitartez). Oraingoan Kataluña, Quebec eta Euskal Herria alderatu ditu; eta, zernahi pentsaturik ere, funtsezko antzak badituztela diosku.

G. Egia-k, berriz, ongi ezagutzen du herri-administrazioa zertan den; horretan ari baita bera aspaldidanik. Lanpostuetarako Hizkuntz Eskakizunak aztertzen ditu zehazki (Baskongadetako datuekin oraingoz). 25.398 langile ez dira hutsaren hurrena: Udal garrantzitsu batzu, Ibar-Ezkerrekoak bereziki, at daude oraindik. Hango buruzagi politikoen errua somatzen du Egia; eta kolore politikoan aurkitu uste du gakoa. Egia-  
ren etsipena ere aski nabarmena dago, eta datuz hornitua. Zertara dator, gauzak horretan daudelarik, epeak "malgutzeko" eta "luzatzeko" asmoa?

J.R. Etxebarria irakasleak, azkenik, ez du Euskal Herrian batere aurkeztu beharrik. Are gutxiago **Euskal Unibertsitatearen** alorrean. Bertatik iraitzia, lanik eta bizimodurik gabe utzia, euskararen etsai guztiek osoki gorrotatua, azalpen ezin ulerterrazagoa eskaini digu oraingoan gaurko UPVaren ahuleziak salatzeke; eta benetako **Euskal Unibertsitatea** eraikitzeke **ezinbesteko baldintzez**. Nekez aurkituko du irakurleak hau baino sarrera-artikulu hoberik. Etxebarriak behin eta berriz azpimarratzen du arazoa erabat **politikoa** dela, eta erabat **nazionala**.

Laburki ezin besterik esan.

Honetatik aurrera, irakurleak berak osa beza.

**Txillardegi**